

ARRUAZU'KO EUSKERA DALA-TA GORKA OBEJERO GANBOA JAUNARI ERANTZUTEN

Direla seiren bat egun jaso dut, Gorka, kanpoan ibilli naizelako, zuk Euskerazaintza erri-Akademiari (Getaria 21 B. Donosti) bidalitako eskutitza.

Poz aundiz noakizu zure gutun orri erantzun-ematera.

Gure irakurlerik geienek jakingo dute noski Naparroa'ko Sakana'n non dagoen zuek Arbazu esaten diozuten eta mapaetan Arruazu agertzen den erri polit ori. Alare, -ori ez dakianik izen bait ditteke- zure baimenarekin esango diet orrelako oiei Arbazu edo Arruazu, Etxarri eta Uarte'ren atean aurkitzen dela, -Etxarri Aranaz, Arbizu, Lakuntza, Arbazu, Liarte Arakil- Altsasu'tik Iruña'ra goaztela.

Ona emen, Gorka, zuk eman bezala, zure gutun orren itz goxo atsegiñak. Bai bait dakit zuen erriko euskera txukun politta euskaldun guztiei neri bezin atsegiña gertatuko zaiela, naiz, aita beteluarra ta ama arribetarraren seme izanik jatorriz naparrak naizen au bazala naparrak izan ez.

Ikus, Gorka, Euskerazaintza gure Akademiko aldizkari ofizialean zure itzak berberak:

"Epaaa!

"Gorka nauzube, Arbazu'ko Euskera Taldia, Arbazu'ko euskeraren alde lan itten duun taldekoa.

"Latiegi'tar Bixente'k DIARIO DE NAVARRAn eskribitutako artikulu batien izen duu zuen berri. Bixente'k euskera errikoiairen alde lan itten duzutela esaten denez, zueidi eskribitzia pentsatu duu informaziyo geigo eukitzeko.

"Arbazu'n ere euskera "Batua" bestearen gañetik jartzen ari da. Umiek ikastolara juten die ta batuaz itzitten dube. Erriko jende nagusiya ta gazte batzu beiño ez duu Arbazuera itziitten.

"Ta olaxen gabilte, erriko oiturak eta gure euskera maiteari eutsi asmoz". Agur ta ikusi artio".

Gorka: Zuen mendietako gazta bezain goxoa gertatu zaku Euskerazaintza'ko akademilari guztioi, Arbazu'n akademilari guztioi, Arbazu'n darabilkizuten lanketa bikain oien berri jakitea, Eta arren eskatzen dizut "Arbazu'ko Euskera Taldia" osatzen duten euskaltzale zintzo guzti oiei Euskerazaintza Akademiaren izenean eskerrak eta zorionak emateko.

Jarrai, iñorenganako bildurrik gabe, zuen erriko itura eta euskera zaintzen eta babesten. Ikastolan umei "el batua" erakusten zaiela?

Ori eragozterik ez dugu, indarkeri zakarra-medio sartu ziguten izkera-modu orren alde jarri bait dire indarra duten guztiak Euskalerrian.

Zuek ordea erakutsi ezaiezute umei arbazueraz itzegiten. Eta esa'iezute egiazko euskera Arbazuera dela, eta ez ikastolan zori txarrez erakusten den izketa berri ori.

Ona, Gorka, zuen artean jorratu itzezuten, sei gogoeta garrantzitsu:

1.^a Euskerak ez zuen "batasun" orren bearrik. 2.^a: Izkuntza bakoitzak bere batasuna du. 3.^a: Euskerak ere badu bere batasuna. 4.^a: "El Batua" es da batasun bat, Zuberoera eta Bizkaiera (geien itzegiten den euskera) zearo kanpoan utzi ditulako. 5.^a: Zuberoera eta bizkaiera sartuta ere ez litzake euskeraren batasuna izengo, euskerari dagokion batasuna ez dalako. 6.^a: "El Batua" latiñaren batasuna bait da! Eta latiñetik sortutako izkuntzena. Gaztelerarena, adibidez. Ez da Euskalduna; "Castellanoa" da.

Eta, orain, galde bat zuri, Gorka: "Zer egin dezake Euskerazaintzak" Arbazu'ko Euskera Taldia'ren alde.

Besarkada aundi bat Talde ortako guztiei.